7. ORDENANTZA FISKALA

UDAL JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBO EDO PROBETXAMENDU BEREZIAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUENA.

## I- XEDAPEN OROKORRAK

**1. artikulua.-**

Entitate lokal honek, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauari jarraiki, Eranskinean zehazten diren tasak ezarri eta exijitzen ditu udal jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik edo probetxamendu bereziagatik. Ordenantza honetan adierazten diren arauen arabera ezarri eta exijitzen dira tasa horiek, eta haren barruan geratzen dira jasota.

**2. artikulua.-**

Ordenantza hau entitate lokalaren lurralde eremu osoan aplikatuko da.

## II- ZERGAGAIA

**3. artikulua.-**

Udal jabari publikoaren erabilera pribatiboa edo haren probetxamendu berezia da zergagaia.

## III- SUBJEKTU PASIBOA

**4. artikulua.-**

1.- Honako hauek izango dira, zergadun bezala, subjektu pasiboak: pertsona fisikoak zein juridikoak, eta Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak 33. artikuluan aipatzen dituen entitateak, baldin eta beren onura partikularrerako gozatu, erabili edo aprobetxatzen badute modu berezian udal jabari publikoa, uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzkoak, 20.2 artikuluan jasotzen dituen kasuen arabera.

2.- Espaloietan egokitutako ibilgailu sarrerak modu pribatiboan erabiltzeagatik edo haien probetxamendu bereziagatik ezartzen diren tasetan eta, oro bat, sarrera horiek eraiki, mantendu, aldatu edo kentzekoetan, zergadunaren ordezkotzat hartuko dira ibilgailuen sarrera horiei sarbidea ematen dieten finka eta lokalen jabeak. Horiek, hala dagokienean, onuradun desberdinei jasanarazi ahal izango dizkiete kuotak.

ORDENANZA FISCAL Nº 7

REGULADORA DE TASAS POR LA UTILIZACIÓN PRIVATIVA O EL APROVECHAMIENTO ESPECIAL DEL DOMINIO PÚBLICO LOCAL

## I-.DISPOSICIONES GENERALES

**Artículo 1º.-**

Esta Entidad Local, de acuerdo con lo previsto en la Norma Foral reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa, establece y exige tasas por la utilización privativa o el aprovechamiento especial del dominio público local especificados en el Anexo, y según las normas contenidas en esta Ordenanza, de las que aquéllas son parte integrante.

**Artículo 2º.-**

La Ordenanza se aplica en todo el ámbito territorial de la Entidad Local.

## II- HECHO IMPONIBLE

**Artículo 3º.-**

Constituye el hecho imponible la utilización privativa o el aprovechamiento especial del dominio público local.

## III- SUJETO PASIVO

**Artículo 4º.-**

1.- Son sujetos pasivos, en concepto de contribuyentes, las personas físicas y jurídicas y las entidades a que se refiere el artículo 33 de la Norma Foral General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa, que disfruten, utilicen o aprovechen especialmente el dominio público local en beneficio particular, conforme a alguno de los supuestos previstos en el artículo 20.2 de la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa.

2.- En las tasas establecidas por la utilización privativa o el aprovechamiento especial por entradas de vehículos o carruajes a través de las aceras y por su construcción, mantenimiento, modificación o supresión, tendrán la consideración de sustitutos del contribuyente, los propietarios de las fincas y locales a que den acceso dichas entradas de vehículos, quienes podrán repercutir, en su caso, las cuotas sobre los respectivos beneficiarios.

3.- Estatua, autonomia elkarteak eta entitate lokalak ez daude behartuta tasak ordaintzera herri jabariaren erabilera pribatibo edo probetxamendu bereziarengatik, zuzenean ustiatzen dituzten komunikazio zerbitzu publikoen probetxamenduetan eta, bereziki, herritarren segurtasunarekin edo defentsa nazionalarekin zer ikusia duten guztietan.

5. artikulua.-

Tasen ordainketa lizentziak beren izenean jasotzen dituztenek egingo dute, eta horien ezean, probetxamenduaren onuradun direnek.

IV- OINARRI EZARGARRIA

6. artikulua.-

Oinarri ezargarria udal jabari publikoaren erabilera pribatiboa edo probetxamendu berezia gauzatzen den unitate bakoitzak osatzen du, Eranskinean jasotakoaren arabera.

V- KUOTA

7. artikulua.-

1.- Zerga kuota tarifa bat, espresuki erabakitako kopuru finko bat edo, bestela, bi prozedurak batera erabiliz finkatuko da, Eranskinean ezarritakoaren arabera.

2.- Erabilera pribatibo edo probetxamendu bereziak udal jabari publikoa suntsitu edo hondatzen duenean, onuradunak, behar den tasari aurre egiteaz gainera, osorik itzuli beharko ditu berreraikuntza edo konponketa gastuen kostuak, eta haren zenbatekoa aldez aurretik ordaindu.

Kalteak konponezinak badira, udalak kalteordain bat jasoko du. Suntsitutako ondasunen pareko balioa izango du, edo bestela, kaltetutako ondasunen zenbatekoarena.

Entitate Lokalak ezingo ditu barkatu, ez osorik ez zati batean, apartatu honetan aipatzen diren kalteordainak edo diru-itzulketak.

VI- SORTZAPENA ETA ZERGALDIA

8. artikulua.-

1.- Udal jabari publikoaren erabilera pribatibo edo

3.- El Estado, las Comunidades Autónomas y las Entidades Locales no estarán obligados al pago de las tasas por utilización privativa o aprovechamiento especial del dominio público por los aprovechamientos inherentes a los servicios públicos de comunicaciones que exploten directamente y por todos los que inmediatamente interesen a la seguridad ciudadana o a la defensa nacional.

Artículo 5º.-

Las tasas se harán efectivas por aquellos a cuyo favor se otorguen las licencias correspondientes o, en su defecto, por quienes se beneficien del aprovechamiento.

IV- BASE IMPONIBLE

Artículo 6º.-

Constituye la base imponible cada una de las unidades en que se materialice la utilización privativa o el aprovechamiento especial del dominio público local, en los términos contenidos en el Anexo.

V- CUOTA

Artículo 7º.-

1.- La cuota tributaria consistirá, conforme a lo establecido en el Anexo, en la cantidad resultante de aplicar una tarifa, una cantidad fija señalada al efecto, o la cantidad resultante de la aplicación conjunta de ambos procedimientos.

2.- Cuando la utilización privativa o el aprovechamiento especial lleve aparejada la destrucción o deterioro del dominio público local, el beneficiario, sin perjuicio del pago de la tasa a que hubiere lugar, estará obligado al reintegro del coste total de los respectivos gastos de reconstrucción o reparación y al depósito previo de su importe.

Si los daños fueran irreparables, la Entidad Local será indemnizada en cuantía igual al valor de los bienes destruidos o el importe del deterioro de los dañados.

La Entidad Local no podrá condonar total ni parcialmente las indemnizaciones y reintegros a que se refiere el presente apartado.

VI- DEVENGO Y PERIODO IMPOSITIVO

Artículo 8º.-

1.- La tasa por la utilización privativa o el

probetxamendu bereziagatik exijitzen den tasa hurrengo uneetan sortuko da zergagaiaren izaeraren arabera: erabilera pribatiboa edo probetxamendu berezia hasten denean, eta orduan zenbateko osoa edo haren zati bat aurrez ordaintzea exijitu daiteke, edota, bestela, jarduketari edo espedienteari hasiera ematen dion eskaera aurkezten denean; jarduketa ez da egingo edo espedientea ez da izapidatuko dagokion ordainketa egiten ez bada.

2.- Tasaren izaera materialak sortzapena aldizkakoa izatea exijitzen duenean, sortzapen hori urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean gertatuko da eta zergaldiak urte naturala hartuko du. Erabilera pribatiboa edo probetxamendu berezia hasi edo uzten denean, ordea, zergaldia zirkunstantzia horretara egokituko da, eta kuotan dagokion hainbanaketa egingo da Eranskinean ezarritakoari jarraituz.

3.- Jabari publikoa erabili edo aprobetxatzeko eskubidea burutu edo gauzatu gabe geratzen bada subjektu pasiboarekin zer ikusirik ez duten arrazoiengatik, dagokion zenbatekoa itzuliko zaio.

aprovechamiento especial del dominio público local se devengará, según la naturaleza de su hecho imponible, cuando se inicie el uso privativo o el aprovechamiento especial, pudiendo exigirse el depósito previo de su importe total o parcial, o cuando se presente la solicitud que inicie la actuación o el expediente, que no se realizará o tramitará sin que se haya efectuado el pago correspondiente.

2.- Cuando la naturaleza material de la tasa exija el devengo periódico de ésta, el mismo tendrá lugar el 1 de enero de cada año y el período impositivo comprenderá el año natural, salvo en los supuestos de inicio o cese en la utilización privativa o el aprovechamiento especial , en cuyo caso el período impositivo se ajustará a esa circunstancia con el consiguiente prorrateo en la cuota, en los términos establecidos en el Anexo.

3.- Cuando por causas no imputables al sujeto pasivo, el derecho a la utilización o aprovechamiento del dominio público no se preste o desarrolle, procederá la devolución del importe correspondiente.

## VII- LIKIDAZIOA ETA ORDAINKETA

### 9. artikulua.-

Entitate Lokalak kontzeptu bakoitzaren likidazioa egingo du, eta likidaturiko kopurua eskudirutan ordainduko da Eranskinak exakzio bakoitzerako ezartzen dituen arau partikularrei jarraituz.

## VII- LIQUIDACIÓN E INGRESO

### Artículo 9º.-

Por la Entidad Local se practicará la liquidación que proceda por cada concepto, ingresándose en metálico la cantidad liquidada, conforme a las normas particulares de cada exacción contenidas en el Anexo.

## VIII- TASEN KUDEAKETA

### 10. artikulua.-

Ordenantza honetan arautzen diren tasak likidatu, bildu eta ikuskatzeari dagokion guztian, eta, halaber, zerga urrapenak kalifikatu eta kasu bakoitzean dagozkien zigorrak ezartzerakoan, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrean jasotakoa aplikatuko da.

## VIII-GESTIÓN DE LAS TASAS

### Artículo 10º.-

En todo lo relativo a la liquidación, recaudación e inspección de las Tasas reguladas por esta Ordenanza, así como la calificación de las infracciones tributarias y determinación de las sanciones que correspondan en cada caso, será de aplicación lo previsto en la Norma Foral General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

## XEDAPEN GEHIGARRIA

COVID-19ren ondorioak arintzeko eta 2020ko ekitaldirako soilik, ez-ohiko hobaria emango zaie:

- Asteroko azokan postua izateagatik baserritarrek ordaintzen duten urteroko tasan %25ekoa eta %100ekoa bigarren hiruhilekoan gainerako azokako postuentzat.

- %100ekoa eremu publikoaren okupazioaren urteroko tasan ostalaritzako terraza eta beladoreak jartzeagatik.

## DISPOSICION ADICIONAL

Para paliar los efectos de la COVID-19 y solo para el ejercicio 2020, se bonificará extraordinariamente:

- En un 25% la tasa anual de ocupación con puesto en la feria semanal de los baserritarras, así como el 100% del segundo trimestre al resto de puestos.

- En un 100% el abono de la tasa anual por ocupación de vía pública con terrazas y veladores a los establecimientos de hostelería.

- 2.Hiruhilekoaren %100ekoa Establezimenduaren kanpoan produktuak edukitzeagatik.

- En un 100% del segundo trimestre por exposición productos fuera del establecimiento

## IX- AMAIERAKO XEDAPENA

Ordenantza hau, eta bere Eranskina, 2020ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean, eta aldatu edo indargabetzea erabakitzen ez den artean jarraituko du indarrean.

## IX- DISPOSICIÓN FINAL

La presente Ordenanza, entrará en vigor el 1 de enero de 2020 y seguirá en vigor hasta que se acuerde su modificación o derogación.

## E R A N S K I N A / *ANEXO*

### TARIFAK / *TARIFAS*

**ESPALOIAK ETA PASABIDEAK PASATUZ ORUBEETARA IBILGAILUAK SARTZEA /**

***ENTRADA DE VEHICULOS AL INTERIOR DE LAS FINCAS A TRAVES DE LAS ACERAS y VADOS***

| | Euro / Euros |
|---|---|
| Espaloi eta ibietatik zehar finketara ibilgailuak sartzeko<br>Ibilgailuko 5 ibilgailu arte / *Entrada de vehículos al interior de las fincas a través de las aceras y vados. Por vehículo, hasta 5 vehículos* | 22,46 |
| Ibilgailuen sarrera. / *Entrada de vehículos.*<br>Ibilgailuko 5 ibilgailu baino gehiago (*) / *Por vehículo, más de 5 vehículos (*)* | 11,23 |
| Ibiak, metro linealeko/urtea / *Vados, por metro lineal / año* | |
| 1. Eremua / Zona 1 | 21,48 |
| 2. Eremua / Zona 2 | 21,48 |
| 3. Eremua / Zona 3 | 17,18 |
| 4. Eremua / Zona 4 | 13,97 |

**Tarifa aplikatzeko arauak.**

1.- Garaje partikular edo kolektiboetara sartzeko izanez gero tarifa normala kobratuko da, hau da, %100a.

2.- Zer automobil edo ibilgailu den ere kontuan izango da tasa kobratzeko orduan. Bi sailetakoak izango dira:

i

Lehenbiziko sailean legez 2.500 kg. baino gutxiagoko karga eramateko moduko ibilgailuak edo furgonetak izango dira.

Bigarren taldean merkantziak edo bidaiariak garraiatzeko ibilgailuak sartzen dira, baimendutako gehienezko karga 2500 kg baino gehiagokoa denean, kasu honetan aplikatu beharreko tasa ibilgailuak lokalera sartzeko espaloia zeharkatu behar dutenean %25 haziko da.

3.- Sarrera automobilak pasatzeko berariaz prestatuta (espaloiaren altuera jaitsita edo espaloiaren materiala aldatuta) duenak ere eskuarki ordaindu behar denaren %25 ordaindu behar du.

**Normas de aplicación de la tarifa.**

1.- Cuando éstas sean con destino a garajes particulares individuales o colectivos, la tarifa a aplicar será la normal o del 100%.

2.- Se tendrá en cuenta también clases de vehículos para los que se solicita la entrada. A efectos de la aplicación de éste impuesto se clasifican en dos grupos:

El grupo primero que comprenderá los turismos, furgonetas, y demás vehículos de transporte cuya carga máxima autorizada no rebase los 2.500.- kilos.

El grupo segundo en el que se incluirán aquellos vehículos de transporte de mercancías o de viajeros cuya carga máxima autorizada rebase los 2.500.- kilos, en cuyo caso la tasa a aplicar respecto al señalado por el acceso de vehículos al local atravesando la acera se verá incrementado en un 25%.

3.- Las entradas que tengan especial acondicionamiento con rebaje del pavimento o cambio de materiales sufrirán un incremento del 25% en el concepto correspondiente al que se fija por el acceso al local atravesando la acera.

4.- Espaloia pasatu beharrik gabe sartzea, tarifaren erdi prezioa ordaindu behar da.

Espaloia jaitsita, materiala aldatuta edota samurrago sartzeko espaloia erabat kenduta egonez gero, espaloia aldatuta dagoela joko da.

Etxadiaren bukaeran, etxe ertzetan daudenak espaloirik gabeko sarreratzat joko dira.

5.- Kuota. Orube batean ate bat baino gehiago izanez gero, ate bakoitzak kuota bat, osoa, ordaindu beharko du, nahiz eta urte guztian egunero sarrera edo pasoa ibili ez. Hala, ate bat egoteak paso edo sarrera bat esanahi du edozein gauzatarako.

6.- Kuotak urtekoa hartuko du. Udalak, edozein moduz ere, badauka eskubidea (administrazio lana samurrago egiteko) hiru hilean behin edo egoki jotzen duen aldian behin kobratzeko kuota hau, beste zerga edo tasa batzuekin batera edo aparte.

7.- Zenbat automobil diren erabakitzeko garajeak kabitzen dituenak kontatuko dira.

8.- Pasabidearen edo ibiaren titularrak, berriz, derrigor jarri behar du udalak emandako seinalea, udalak ordaindu eta gero jasoko duena.

(*) Bost ibilgailu baino gehiago egonez gero, lehenengo bostek 22,46 euro ordaindu beharko dituzte ibilgailuko eta gainerakoek 11,23 euro ibilgailuko.

4.- Entrada sin atravesar acera. Deberá abonar el 50% de la tarifa.

Por acera anormal se entenderá la que tenga especial acondicionamiento con rebaje del pavimento, cambio de materiales o interrupción total de la acera para facilitar la entrada.

Se considerará entrada sin acera las situadas en las esquinas de los edificios, al final de la manzana.

5.- Cuota por el acceso. En el caso de que en la misma finca existan más de una puerta, las cuotas se girarán por cada uno de los accesos siempre que su utilización se realice aun cuando sea temporalmente, y se considerará como otra entrada a todos los efectos.

6.- Las cuotas serán anuales. De cualquier forma, el Ayuntamiento tendrá la facultad, en orden a agilizar la gestión administrativa, de realizar el cobro trimestralmente o con cualquier otra cadencia, junto o separadamente a recibos ya existentes.

7.- Para determinar el número de vehículos se tomará el dato de la capacidad de vehículos del garaje.

8.- El titular del vado estará obligado a colocar la placa de vado que le entregue el Ayuntamiento, previo abono del costo suplido.

(*) Cuando haya más de cinco vehículos, los cinco primeros pagarán 22,46 euros por vehículo y los restantes 11,23 euros por vehículo

## ZAMALANETARAKO EMAKIDA BEREZIAK / *CONCESIONES ESPECIALES CARGA Y DESCARGA*

| | Euro / *Euros* |
|---|---|
| 1 eremua / *Zona 1* | |
| Okupazioa metro linealagatik / *Ocupación por metro lineal.* | 22,86 |
| 2. eremua / *Zona 2* | |
| Okupazioa metro linealagatik / *Ocupación por metro lineal.* | 22,86 |
| 3. eremua / *Zona 3* | |
| Okupazioa metro linealagatik / *Ocupación por metro lineal.* | 5,74 |
| 4. eremua / *Zona 4* | |
| Okupazioa metro linealagatik / *Ocupación por metro lineal.* | 3,38 |

## BITRINAK, PORTADA APAINGARRIAK, TOLDOAK ETA MARKESINAK. / *VITRINAS, PORTADAS DECORATIVAS, TOLDOS Y MARQUESINAS.*

| Bide publikora ateratzen direnak / Salientes a la vía pública | Euro / *Euros* |
|---|---|
| 1. eremua.- m² edo zatikiko urtean / *Zona 1.- por m2 o fracción al año* | 9,91 |

| | |
|---|---|
| 2. eremua.- m² edo zatikiko urtean / *Zona 2.- por m2 o fracción al año* | 9,91 |
| 3. eremua.- m² edo zatikiko urtean / *Zona 3.- por m2 o fracción al año* | 8,30 |
| 4. eremua.- m² edo zatikiko urtean / *Zona 4.- por m2 o fracción al año* | 7,87 |
| Eranskinak / *Adosados* | |
| 1. eremua.- m² edo zatikiko urtean / *Zona 1.- por m2 o fracción al año* | 5,14 |
| 2. eremua.- m² edo zatikiko urtean / *Zona 2.- por m2 o fracción al año* | 4,54 |
| 3. eremua.- m² edo zatikiko urtean / *Zona 3.- por m2 o fracción al año* | 4,39 |
| 4. eremua.- m² edo zatikiko urtean / *Zona 4.- por m2 o fracción al año* | 4,10 |

ESTABLEZIMENDUZ KANPO PRODUKTUAK ERAKUSTEKO / *EXPOSICION DE PRODUCTOS FUERA DEL COMERCIO*

| | |
|---|---|
| m²ko eta hiruhileko | 14,23 euro |

AZOKA EDO HERRI JAIETAKO SALTOKIAK / PUESTOS EN FERIAS O FESTEJOS POPULARES

| | | Euro / Euros | |
|---|---|---|---|
| m² eta eguneko orokorrean / *Por m² y día en general* | | 2,19 | |
| m²ko hiruhilekoa / *Trimestral por m².* | | 15,08 | |
| Baserritarak: / *Baserritarras*<br>- mahai bat/urteko / *1 mesa al año*<br>- mahai erdi bat/urteko / *1 media mesa al año*<br>- | | <br>20,93<br>10,45 | |
| AZOKA BEREZIETAN SALTOKIAK JARTZEKO / *INSTALACION DE PUESTOS EN FERIAS ESPECIALES* | *Euskal Jaiak / Fiestas vascas* | Eguberrietako *Azoka / Mercado de navidad* | *Ardoaren azoka eta Artzain eguna / Feria del Vino y Artzai Eguna* |
| Txorizo, talo eta ogitartekoak saltzeko / *Venta de talos y bocadillos de chorizo.* | 243,27 euro/egun euros/día | 194,63 euro/egun *euros/día* | 145,98 euro/egun *euros/día* |
| Gainerako saltokiak (eztia, hegaluzea, patea, pipar, poteak, eta. )./<br>*Resto puestos (miel, atún, paté, latas de pimiento, etc.)* | 14,69 euro/m.l/egun *euros/m.l/día* | 14,69 euro/m.l./ egun *euros/m.l/día* | |
| Arboledan gazta saltzeko postuak (Idiazabal Gazta Lehiaketan parte hartzen duten artzainak zero euro ordainduko dute )/<br>Puestos de venta de queso en la Arboleda (Pagarán cero euros aquellos pastores que participen en el Concurso de Queso Idiazabal.) | 14,69 euro/m.l/egun *euros/m.l/día* | | |
| Artisautza<br>(Udalak erabakiko du zeintzuk diren talde honetan sartzekoak) /<br>*Sector de artesanía*<br>*(El Ayuntamiento determinará quienes están incluidos en éste grupo )* | | 0,00 | |

UDALERRIKO KALEEN ZORUA, AIREA EDOTA LUR-AZPIA NORBERARENTZAT ERABILTZEA EDO PROBETXU BEREZIA KENTZEA. / UTILIZACION PRIVATIVA O APROVECHAMIENTO ESPECIAL DEL SUELO, VUELO Y SUBSUELO DE LAS VIAS PUBLICAS MUNICIPALES.

| | |
|---|---|
| Lurra: */ Suelo :* | |
| Ostalaritzako aulki eta mahaitxoak ( 4 aulkiko mahai bakoitzeko ). Urte Osoa.<br>/<br>*Sillas y veladores de hostelería ( por cada mesa de 4 sillas ). Año completo* | 76,30 |
| Ostalaritzako aulki eta mahaitxoak ( 6 aulkiko mahai bakoitzeko ) . Urte Osoa.<br>/<br>*Sillas y veladores de hostelería ( por cada mesa de 6 sillas ) .Año completo* | 81,75 |
| Ostalaritzako aulki eta mahaitxoak ( 2 aulkiko mahai altu bakoitzeko ) .Urte Osoa<br>/<br>*Sillas y veladores de hostelería ( por cada mesa alta con 2 sillas ). Año Completo* | 54,50 |
| Sillas y veladores de hostelería ( 2 aulkiko mahai baxu eta barrika bakoitzeko)<br>Urte osoa<br>/<br>*Sillas y veladores de hostelería ( por cada barrica y mesa baja con 2 sillas )*<br>*Año completo* | 67,00 |
| Mahiak eta aulkiak okupazioa Herriko Jaietan, 4 aulkiko mahaiko eta eguneko<br>/<br>Ocupación mesas y sillas en Fiestas Patronales, por mesa de 4 sillas y día | 5,56 |
| Mahiak eta aulkiak okupazioa Herriko Jaietan, 6 aulkiko mahaiko eta eguneko<br>/<br>Ocupación mesas y sillas en Fiestas Patronales, por mesa de 6 sillas y día | 5,57 |
| Mahiak eta aulkiak okupazioa Herriko Jaietan, 2 aulkiko mahai altuko eta eguneko<br>/<br>Ocupación mesas y sillas en Fiestas Patronales, por mesa alta de 2 sillas y día | 3,72 |
| Mahiak eta aulkiak okupazioa Herriko Jaietan, 2 aulkiko mahai baxuko eta barrikako eta eguneko )<br>/<br>Ocupación mesas y sillas en Fiestas Patronales, por barrica y mesa baja con 2<br>Sillas y día | 4,56 |
| Tabernak, txurrosaltoki, tiraketa-postu, etab. m²ko eta eguneko<br>/<br>Barras, churrerías, puestos de tiro, etc., por m2 y día. | 1,13 |
| Loteria saltokia, m²ko eta eguneko<br>/<br>Kiosco de venta de lotería, por m2 y día. | 1,13 |
| Zirko eta beste ikuskizun batzuk jartzea astea /<br>Instalación de circos y otros espectáculos semana | 339,95€ |
| Helikopteroak lur hartzea / Aterrizaje Helicóptero | 618,10€ eguna/día |
| txonetak eta Puzgarriak (haur jolasak) */ Colchonetas e Hinchables ( juegos infantiles)*<br>*(*)*0 € beti ere beraien tarifa udalarekin adosten bada. Umeen tarifa adosten ez bada 40€/ eguna / Cero euros si el precio del billete se acuerda con el Ayuntamiento, en caso contrario 40€ / día | 0 |
| Puxikak saltzea / Venta de globos | 15,60€/eguna(día) |
| Obrak: */ Obras:* | |
| Egitura metalikoko okupazioa, bere azpian oinezkoentzako pasabidea utziz. m²ko eta eguneko */ Ocupación con estructura metálica dejando paso peatonal protegido bajo la misma, por m2 y día* | 0,13 |
| Lanen eremua erabat isteko hesi altua duen okupazioa, m²ko eta eguneko /<br>*Ocupación mediante colocación de vallado alto que cierra totalmente la finca de obras, por m2 y día.* | 0,22 |
| 1,5 metro baino gutxiagoko hesi metalilkoko okupazioa, m²ko eta eguneko /<br>*Ocupación con uso de vallas metálicas de altura inferior a 1,5 mts., por m2 y día.* | 0,40 |
| Hesirik gabeko okupazioa, m²ko eta eguneko /<br>*Ocupación sin uso de vallas, por m2 y día.* | 0,62 |
| Kontenedorekin okupazioa, eguneko /<br>Ocupación con contenedores, por día. | 2,15 |

| | |
|---|---|
| Herri Zaharrean etxeak egiteko kalea okupatzea /<br>Ocupación de vía pública para construcción viviendas en Casco Histórico | %25 tarifa |
| Kutxazain automatikoekin m2 eta eguneko, aprobetxamendu berezia. /<br>Aprovechamiento especial con cajeros automáticos | 2,06€/m2/eguna<br>*2,06€/m2/día* |
| ""Vending" makinen aprobetxamendua berezia /<br>Aprovechamiento especial con máquinas de vending | 1,28/m2/eguna<br>*1,28/m2/día* |

*Establezimenduaren fatxadan kartela jarriko da, irekitzeko ordutegiarekin eta kanpoan zenbat mahaitxoak jartzeko baimena duten adierazteko.

* Se pondrá un cartel en la fachada del establecimiento con información del horario de apertura y el número de mesas autorizadas para velador.

Tarifa aplikatzeko arauak.

1.- Udalak sustatutako obra denean ez dago prezio publiko horiek ordaindu beharrik.

2.- Paso gutxiko bideetan tarifaren erdi prezioa ordaindu beharko da.

3. Herriko Jaietan kalean mahaiak eta aulkiak jarri nahi badira, aparteko eskabidea egin beharko da, hau da, urte osorako egiten denaz gain beste bat. Gainera, uda partean jarritakoak baino gehiago badira Herriko Jaietan, alde hori kobratuko da.

4.- Mahaiak eta aulkiak: Ezarritako tarifak %70an aplikatuko dira erdigunetik kanpo dauden tabernei. Erdigunea zein kontsideratzen den planoa prestatu da.

5. Salbuespen hori ez da etxeak berritzen direnean aplikatzen.

Normas de aplicación de las tarifas

1ª Cuando se ejecute una obra promovida por el Ayuntamiento aplicará éste precio público.

2ª Cuando se trate de vías públicas de poco tránsito, el precio se reducirá en un 50%.

3ª La ocupación con mesas y sillas en Fiestas Patronales requerirá una solicitud diferenciada de la que se haga para todo el año y se facturará por el exceso de mesas instaladas en Fiestas respecto a las instaladas en el resto de la temporada de verano.

4ª Mesas y sillas. Las tarifas establecidas se aplicarán en un 70%, cuando la ocupación se produzca en bares situados fuera del Casco. Se ha preparado un plano delimitando que se entiende por Casco a estos efectos.

5ª La exención no se aplica a las reformas de edificios

## UDALERRIKO KALEEN ZORUA, AIREA EDOTA LUR-AZPIA NORBERARENTZAT ERABILTZEA EDO PROBETXU BEREZIA KENTZEA, HORNIKUNTZA ZERBITZUAK USTIATZEN DITUZTEN LANTEGIEK EGITEN DUTENA.

Herri guztiari edo jende multzo handi bati zerbaiten gairen batez hornitzeko zerbitzua ustiatzen duen lantegiak Udalerriko kaleen zorua, airea edota lur-azpia norberarentzat erabiltzeko nahiz probetxu berezia kentzeko ordaindu behar duen prezioa lantegi horrek udalerrian urtean fakturatzen duenetik ateratako sarrera gordinaren %1,5 izango da.

Horretarako, honakoak hartuko dira hornidura-zerbitzuen enpresa ustiatzailetzat:

a) Argindarra, ura edo gasa hornitzen duten enpresak.
b) Jendearentzako telekomunikazio zerbitzuak ematen dituzten enpresak, baldin eta udal bide publikoen lurzoruan, zorupean edo hegalduran erabilera pribatiboz edo aprobetxamendu bereziz instalatutako telekomunikazioko sare publikoak, osorik edo zati batean, erabiltzen badira.
c) Hornidura-zerbitzuak ematen dituen beste edozein enpresa, baldin eta horiek emateko udal lurzorua, hegaldura edo zorupea hartzen duten hodiak, kableak eta gainerako instalazioak erabiltzen badituzte.

## UTILIZACIÓN PRIVATIVA O APROVECHAMIENTO ESPECIAL DEL SUELO, SUBSUELO O VUELO DE LAS VIAS PÚBLICAS MUNICIPALES, EN FAVOR DE EMPRESAS EXPLOTADORAS DE SERVICIOS DE SUMINISTRO.

El precio por las utilizaciones privativas o aprovechamientos especiales constituidos en el suelo, subsuelo, o vuelo de las vías públicas municipales, en favor de empresas explotadoras de servicios de suministro que afecten a la generalidad o a una parte importante del vecindario será el 1,5 % de los ingresos brutos procedentes de la facturación que obtengan anualmente en el término municipal dichas empresas.

A estos efectos, tendrán la consideración de empresas explotadoras de servicios de suministro:

a) Las empresas suministradoras de energía eléctrica, agua o gas.
b) Las empresas que presten servicios de telecomunicaciones instaladas con utilización privativa o aprovechamiento especial del suelo, subsuelo o vuelo de las vías públicas municipales, con independencia de la titularidad de las redes o instalaciones.
c) Cualesquiera otras empresas de servicios de suministros que utilicen para la prestación de las mismas tuberías, cables y demás instalaciones que ocupen el suelo, vuelo o subsuelo municipales.

Artikulu honetan jasotakoaren ondorio horietarako, zerbitzu horien enpresa ustiatzaileen artean zerbitzu horiek banatu eta merkaturatzen dituztenak sartuko dira.

A los efectos de lo establecido en este artículo se incluirán entre las empresas explotadoras de servicios las empresas distribuidoras y comercializadoras de los mismos.

Tarifa aplikatzeko araua.

Norma de aplicación de la tarifa.

1.- Lantegiak adierazpena aurkeztu behar dio Udalari urtearen aurreneko lau hilabeteak joan baino lehen. Aurreko urtean udalerrian egindako hornikuntzatik lortutako sarrera gordinen gaineko xehetasunak eman behar ditu adierazpenean.

1.- Las empresas presentarán dentro de los cuatro primeros meses de cada ejercicio declaración por los ingresos obtenidos por suministros efectuados dentro del término municipal con detalle de los ingresos brutos obtenidos en el año inmediatamente anterior.

a) Era berean, lantegiaren kontabilitateari buruzko laburpena eta Udalak eskatutako beste edozein agiri edo dokumentu ekarri beharko dizkio adierazpenarekin batera lantegiak Udalari.

a) Dicha declaración habrá de acompañarse de un extracto de la contabilidad de la empresa y de la documentación que en cada caso solicite la Administración Municipal.

b) Horrekin erabaki eta kitatuko du Udalak, behin-behingoz, tokatzen den prezio publikoa. Kitatu eta 5 urte pasa baino lehen ere, ordea, Udalak badauka kitatutako prezioa zuzentzeko eskubidea. Behin bost urte horiek pasatutakoa, behin-betiko kitatutzak joko da tarifa.

b) La Administración Municipal procederá a la determinación o cobro provisional de éste precio público, pudiendo rectificar la cantidad a satisfacer dentro del plazo de 5 años de haberse practicado la misma, transcurrido el cual se entenderá, en su caso, elevada a definitiva.

ALKATEA / EL ALCALDE,

IDAZKARIA / LA SECRETARIA